

ERABAKIA, 2016KO IRAILAREN 7KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ FARMAZIA FAKULTATEAKO LABORATEGIKO OFIZIALA LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA EGINKIZUNEN ESLEITZEAN BETETZEKO 2016KO UZTAILAREN 6KO DEIALDIA EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2016ko uztailaren 6ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2016ko irailaren 1eko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Bigarrena.- Deialdiko lanpostua Eginkizunen Ezleitzean erregimenaren bidez hornitzeko prozedura hau da: AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen 2013ko uztailaren 4ko Akordioa (AZPko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzkoa), UPV/EHUko Gobernu Kontzeiluaren 2013ko uztailaren 18ko bileran berrestatua,

Hirugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak hurrenkera ordenatuan baloratu ondoren goren geratzen den pertsona.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU

Lehenengoa.- Deialdiko lanpostua lan kontratuaren bitartez, aldi baterako esleitzea, hautatutako lan-kontratudun langileari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2016ko urriaren 3ko ondorio-dataz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2013ko uztailaren 4ko akordioaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaleei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honen kontra lan-auzibidera jo aurreko erreklamazioa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean hilabeteko epean. Hilabete igaro eta ebaizpena jakinarazi ez badiote langileak ezetsizat jo dezake erreklamazioa. Erreklamazioari ezezkoa eman ez gero,

edo ebazpenik jakinarazi gabe hilabete igaroz gero, epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, aurretiazko erreklamazioa ukatu dela jakinarazten den egunetik edo administrazio-isiltasunez ukatutzat jotzen den egunetik kontatuta. Hori guztia, 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 125. artikuluan eta urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2016ko irailaren 7an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia
(2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA



The image shows a circular official stamp in blue ink. The stamp contains the text "GERENTZIA GERENCIA" at the top, the university logo in the center, and "UNIBERTSITATEA" and "EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA" around the bottom edge. A handwritten signature in blue ink is written over the stamp.

Miren Lorea Bilbao Arteche



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

NAZICARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

I. ERANSKINA

2016ko uztailaren 6ko EGINKIZUNEN ESLEIPENA deialdiaren Erabakia

Esleipenduna: Alberto de Bergareche Fernández de Aranguiz
Lanpostua: Laborategiko ofiziala
Erref: L 102
Zenbatgarrena: 2
Lanaldia: Arautua
Taldea: III
Kategoria profesionala: Kimikako teknikari espezialista
Espezialitatea: Kimika
Maila: 18
HE: 2.94/10
Langunea: FARMAZIA FAKULTATEA
Campus: ÁLAVA/ARABA
BE:
Ondorio data: 2016ko urriaren 3

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - EGINKIZUNEN ESLEIPENA - 16/07/6 DEIALDIA																												
24	L 102	Laborategiko ofiziala										Hor. 2	HE 2.94/10	FARMAZIA FAKULTATEA														
ADJ	DNI	DEITURAK. Izena	ORD.	PUNT. GUZT.	ANTZIN.		1 ^a - Taldea		2 ^a - Taldea		3 ^a & 4 ^a Talde		EHU ⁿ ZERB.		5 ^a - Taldea		6 ^a - Taldea		7 ^a & 8 ^a Talde		BESTE ADM. ZERB. GUZTIRA		TITUL.	HIZK.		EUSKARA		ELKAR.
					Urteak	Punt.	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Puntuak	Puntuak	HE	Pt.
b) Deitutako lanpostuaren talde kategoria eta espezialitate bereko lan kontratadun aldi baterako langilea																												
ADJ.	16280101B	DE BERGARECHE FERNANDEZ DE		29,5000	19	9,5			180	18,00	4	0,40	184	18,00									18	2,00		3	0	

ADJ - Esleipenduna

R- Uko egin dio prozesuari

O- Beste deialdiko lanpostua aukeratu du